BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

2837

EBAZPENA, 2010eko martxoaren 12koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Barna, S.A. enpresari ingurumen-baimen bateratua emateko dena, Mundakako udalerrian (Bizkaia) arrain-irin eta -olioetako 3. kategoriako azpiproduktuak hartu, maneiatu eta eraldatu ditzan.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 29an, Ibon Jauregizar Zabala jaunak, Barna, S.A. enpresaren izenean eta ordezkaritzan, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailari ingurumeneko baimen bateratua ematea eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2006 Legeak xedatutakoaren arabera, Mundakako udalerrian (Bizkaia) arrain-irin eta -olioetako 3. kategoriako azpiproduktuak hartzeko, maneiatzeko eta eraldatzeko.

Beranduago, 2007ko uztailaren 24an, sustatzaileak Mundakako Udalak emandako aldeko hirigintza-txostena (2007ko apirilaren 24koa) eta ondorengo agiri teknikoak igorri zituen: Barna, S.A. enpresaren IPPC oinarrizko proiektua (2007) eta lurzoruaren Aurretiazko Egoera Txostena (2007). 2007ko abuztuaren 21ean proiektu horren eranskinak igorri ziren.

Erreferentziako baimena eskatzeko unean, Barna, S.A. enpresak, besteak beste, jarduerarako 2004ko urtarrilaren 9ko baimena zuen. Baimen hori arrain-irinak fabrikatzeko eman zen. Enpresa sustatzaileak zabaltzeko 2005eko abenduaren 1eko baimena zuen. Era berean, enpresa sustatzailea nekazaritzako elikagai-jardueren erregistroan inskribatuta zegoen 0048040148 erregistro-zenbakiarekin, eta 3. kategoriako eraldaketa-instalazio gisa jarduteko baimena zuen, 2005eko urtarrilaren 19koa, eta itsasora isurketak egiteko baimena, 2003ko maiatzaren 11koa, kolektorera konektatzeko aukeraren baldintzapean.

2007ko irailaren 4an, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran esku-hartzea duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoaren bidez proiektua jendaurrean jartzeko izapidea adosteari dagokionez. Zehazki Mundakako Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatu zien txostena.

Ingurumen sailburuordeak 2008ko urtarrilaren 24an emandako ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Barna, S.A. enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2008ko otsailaren 11n. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2008ko otsailaren 17an, eta ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, alegaziorik ez dagoela egiaztatu da.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko martxoaren 25ean Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Mundakako Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz.

Eskaeraren izapidetzearekin jarraitzeko asmoz, 2008ko apirilaren 8an, agiri gehigarriak txertatzeko eskatu zitzaion sustatzaileari, eta 2009ko abuztuaren 3an osatu ziren agiriak.

Azkenik, 2008ko abuztuaren 21ean, txostena eskatu zitzaion Euskal Herriko Kostaldeen Mugapenari.

2010eko otsailaren 4an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Barna, S.A. enpresaren esku utzi zen, Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailak egindako ebazpen-proposamena gehituta. Ez zen horren inguruko jakinarazpenik jaso.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lege horrek atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea du helburu, edo hori ezinezkoa bada, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezarri eta ingurumen osoaren babes maila altua lortzeko.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat eginez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusi teknikoa dutenak.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 9. artikuluari jarraituz, ingurumeneko baimen bateratua behar da 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua aplikatzekoa den instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena ematen parte hartuko duten Herri Administrazio guztien artean koordinatuko den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen legerian aurreikusitako ingurumen-baimen guztiak administrazio-egintza bakar batean bildu nahi izan dira. Barna, S.A. enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsuen ekoizle txiki eta hondakin ez-arriskutsuen ekoizle izatearen inskripzioak, atmosfera kutsa dezaketen jardueren legeztatzea, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuak aurreikusten duen jarduera sailkatuetarako udal-baimenaren prozedura ordezkatzen du; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko; baita goiko arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei dagokienez ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak aplikatuz, Barna, S.A. enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak, eta Mundakako Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak sartu dira, espedientean agertzen den bezala.

Instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri onenak eta aplikatzekoa den arloko legerian ezarritako baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2005eko maiatzeko Reference Document on Best Available Techniques in the Slaughterhouses and animal by-products industries BREF agiriaren edukia hartu da kontuan. Gainera, sektoreko araudiei dagokienez, kasu honetan bereziki aplikatzekoa da giza kontsumorako ez diren animalia-azpiproduktuei aplikatzekoak diren arau sanitarioak ezartzen dituen Europako Parlamentuaren 1774/2002 zenbakiko araudia eta 2002ko urriaren 3ko Kontseiluaren Araudia; eta Euskal Autonomia Erkidegoko industrietan eta saltegietan sortzen diren eta gizakiek jateko ez diren animalia-azpiproduktuei buruzko uztailaren 29ko 198/2003 Dekretua.

Espedienteko txostenak aztertu ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Barna SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa ezartzen duen abenduaren 22ko 629/2009 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailak 2010eko otsailaren 4an emandako ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; uztailaren 1eko 16/2002 Legea, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; ekainaren 28ko 1302/1986 Legegintzako Errege Dekretua, Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazioari buruzkoa, maiatzaren 8ko 6/2001 Legeak aldatu zuena; irailaren 30eko 1131/1988 Errege Dekretua, Legea burutzeko araudia onartzen duena; abenduaren 22ko 629/2009 Dekretua, Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Egoitza soziala Mundakako udalerriko (Bizkaia) Lamiaran industrialdeko Lamiaren Punta kaleko z./g.an eta IFK: A48032072 zenbakia duen Barna SA enpresari Ingurumeneko Baimen Bateratua ematea Mundakako udalerrian arrain-irin eta -olioetako 3. kategoriako azpiproduktuak hartzeko, maneiatzeko eta eraldatzeko, ebazpen honen bigarren atalean ezarritako baldintzekin.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskinaren 9.2 kategorian sartuta dago, «Animalia-gorpuzki edo -hondakinak ezabatu edo aprobetxatzeko industriak, eguneko 10 tona baino gehiago tratatzeko gaitasuna dutenak» izenburuarekin.

Enpresa 5.422 m^2-ko lur zati batean dago, eta horietatik 2.010 m^2 eraikiak dira.

Jarduera arrain-irin eta -olioetako 3. kategoriako azpiproduktuak bi ekoizpen-lerroren bidez eraldatzea da: «zati urtsu eta oliotsuko lerroa» eta «zati solidoko lerroa».

Urteko gehienezko ekoizte-ahalmena 18.000 t irin eta 6.350 t oliokoa da.

Prozesatutako lehengaia 3. kategoriako animalia-azpiproduktuak dira, eta honela osatuta daude: tunido-hondakinak (azala, isatsak, hezurrak eta hegatsak): prozesu osoaren % 75 dira; tunido-hondakin gordinak (buruak eta erraiak): % 15 dira; antxoa eta sardina gazituen hondakinak (buruak, hezurrak, etab.): gainera % 10a dira; erreuseko arraina (berdela, txitxarroa, etab.): noizean behin baino ez.

Lehengai hori erabiliz, Barna, S.A. enpresak arrain-irinak eta -olioak lortzen ditu, eta horretarako bi ekoizpen-lerro ditu. Puntu berean hasten dira, baina prentsaketan bereizi egiten dira, eta horien bidez lehengaia erabiliz, hauxe lortzen da: arrain-irina eta olioa.

Arrain-irina fabrikatzeko prozesu industriala, funtsean, lehengaia zatikatzea da, 4 eta 10 mm arteko partikuletan txikitu arte, ondoren lurrunetan egosteko (120 ºC-ra 15 minutuz). Gero, prentsatu eta zentrifugatuta, hiru fase bereizten dira: solidoa, oliotsua eta urtsua.

Zati solidoa («opila» izenekoa) proteinez, gatzez, koipez eta urez osatzen da; azken lehortze bat egiten zaio (80-100 ºC, 20 minutuz), horren hezetasun-edukia % 50-60tik azken % 6-10era murrizteko.

Zati oliotsua biltegiratzeko tangetara bidaltzen da, eta ondoren araztu egiten da.

Zati likidoari edo «kola-urei», oraindik solido esekiak eta disolbatuak dituenari, zentrifugazio–eta lehortze-prozesu bat edo antzekoa ematen zaio. Kola-ura prozesura bertara birzirkulatzen da neurria handi batean (guztizkoaren 2/3), eta soberakoa lurrungailu batean kontzentratzen da, gai solidoen % 30 duen ura lortuz, eta zentrifugadore batetik pasa daiteke olioa berreskuratzeko.

Lehortutako gaia errota batetik igarotzen da azkenik, eta horren ondoren, irina hozten uzten da eta silo, zaku edo big-bagetan biltegiratzen da, bidali arte.

Erabilitako energiak BIA fuel-olioa eta propanoa dira. Erregai gisa erabiltzen dira biak digestio-prozesuan behar den lurruna lortzeko erabilitako bi galdaretan.

Barna, S.A. enpresak bere ekoizte-prozesurako oinarrizko baliabide gisa erabiltzen du ura. Batik bat gas-egoerako bero-emaile gisa (ur-lurruna) jarduten du eta ez du lehengaia ukitzen, eta ondoren hori zeharka hozte-likido gisa kondentsatzeko. Instalazioak eta ibilgailuak garbitzeko ere funtsezkoa da ura erabiltzea. Ur sanitarioen kontsumoa ere kontuan hartzekoa da. Enpresa iturri hauetatik elikatzen da:

● Busturialdeko Ur Partzuergoak hornitutako sareko ura.

● Euri-urak: azaleko andel bat da, 900 m^3 inguruko edukierakoa, Barna SA enpresaren lur zatiaren barruan kokatua. Ur hori lantegia eta kamioiak urez blaitzeko eta ponpak zigilatzeko sistemarako erabiltzen da.

Euri-ur biltegiratuei arazteko prozesu bat ematen zaie kontsumitu aurretik.

● Itsasoko ura: Itsasoko urak biltzeko puntua Lamiaren Puntan dago; ur horren erabilera nagusia hoztea da, eta lurrungailuko eta lehorgailuko lurruna kondentsatzea.

Usain-tratamendurako, usainak kentzeko instalazio bat dago, eta horren bidez usain-bilketa bat egiten da prozesuan usain desatseginak sortzen diren puntuetan. Lurruntze/kondentsatzeko sistema batetik pasarazten dira usainak, batik bat lehortze-prozesuan lurrundutako urak berreskuratzeko, eta azkenik, galdaran sartzen dira, erretzeko.

Ehotzeko eremuan isuri barreiatuak sortzen dira. Bildu behar diren irinak dira, produktu-galerak eta partikula organikoen isuriak saihesteko.

Horretarako, Barna, S.A. enpresak mahuka-iragazki bat du, oihal iragazleen bidez giroan esekitako irina atxikitzen duena, eta iragazkia bete ondoren, presiozko airearen bidez prezipitatzen du, ondoren zuzenean toberetan biltzeko.

Instalazioan sortutako hondakin arriskutsu nagusiak instalazioko zerbitzu orokorretakoak dira. Hondakin ez-arriskutsuak mantentze-lanetakoak dira batik bat.

Barna, S.A. enpresak aurkeztutako proiektuak 2005eko maiatzeko «Reference Document on Best Available Techniques in the Slaughterhouses and Animal By-products Industries» Europako Bref agirian jasotako teknika erabilgarri onenak (TEO) direnetako batzuk erabiltzen ditu. Zehazki, aipatu agirian TEOtzat hartzen diren neurri hauek ditu instalazioak: isolamendu termikoa, lurrun-kondentsazio bidezko digestioa, galdararen purgak birzirkulatzea, gainazal hotz eta beroen isolamendu termikoa, instalazio eta makinen prebentziozko mantentze-lanak egitea, harreran usainak murriztea, elikadura berotzeko tangan galdararen erregailurako gainezkabidea, eta isurketetan olio lubrifikatzaileak murriztea.

Bigarrena.– Barna, S.A. enpresak Mundakako udalerrian arrain-irin eta -olioetako 3. kategoriako azpiproduktuak hartzeko, maneiatzeko eta eraldatzeko jarduera ustiatzeko ondorengo baldintzak eta eskakizunak jartzea.

A) Kosten uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 88.4 artikuluak xedatutakoa betez eta aipatu legearen 85. artikuluan eta onartuko den garapen-araudian zehaztutako irizpideak jarraituz, ebazpen honetako C.2.5 atalak aipatzen duen isurketa-kanona zehaztu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Antolamendu, Nekazaritza eta Arrantza Sailak fidantza bat eskatu ahal izango dio Barna, S.A. enpresari, ezarritako isurketa-baldintzak bete daitezen.

B) Administrazioarekiko harremanen arduradunari buruz emandako datuetan aldaketarik badago, Barna, S.A. enpresak aldaketa horien berri emango du Ingurumen Sailburuordetzan.

C) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusi bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

C.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

C.1.1.– Baldintza orokorrak.

Barna, S.A. enpresaren instalazioa ustiatzean egingo diren isuri atmosferikoek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gaindituko.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango isuri ez-zarratuak biltzea teknikoki edota ekonomikoki bideragarria ez denean, edo ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabeko isuririk ez egiteko, eta egiten direnak giza osasunerako eta gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta zainduko dira, efluenteen tenperatura- eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

C.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Barna, S.A. enpresaren instalazioak ondorengo fokuak ditu, atmosfera babestearen arloan indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Foku zk.	Foku-kodea	Fokuaren izena	Garaiera	Barne-diametroa	Katalogazioa	UTM koordenatuak	
					Taldea	X	Y
1	48-021585-01	2. lurrun-sorgailua (Signy lurrun-galdara)	10	0,82	B	524.275	4.807.223
2	48-021585-02	1. lurrun-sorgailua (Vulcano lurrun-galdara)	8	0,6	B	524.274	4.807.231

Aipatutako fokuetarako, Barna, S.A. enpresak tximiniaren garaieraren kalkuluak justifikatzeko teknikari eskudunak egindako memoria aurkeztu beharko du, 1976ko urriaren 18ko Aginduaren (industriak atmosferan eragiten duen kutsadurari edo parametro meteorologikoak eta topografikoak kontuan hartzen dituzten sakabanatze fisiko eta matematikoko bestelako ereduei aurre hartu eta hori zuzentzeari buruzkoa da agindu hori) II. eranskinean adierazitakoari jarraiki.

Horretaz gain, isuri barreiatuak sortzen dira ondorengo prozesuetan: hartzeko toberak, lehorgailua, egosgailua, prentsa, dekantagailua, ehotzea, kola-uren tangak. Isuri horiek isurketa-puntu bakoitzean biltzen dira eta usainak arazteko prozesura eramaten dira, eta azkenean galdaran sartzen dira, erretzeko.

C.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Instalazioa ustiatzean egingo diren isuri atmosferikoek ez dituzte isurtzeko muga-balio hauek gainditukо:

Fokua(k):	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
2. lurrun-sorgailua (SIGNY lurrun-galdara)	Nitrogeno oxidoak (NO_x) NO_2 gisa neurtuta	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	1.445 ppm
	Sufre oxidoak (SO_x), SO2 gisa neurtuta	850 mg/Nm^3
	Opakutasuna	4 (Bacharach eskala)
1. lurrun-sorgailua (VULCANO lurrun-galdara)	Nitrogeno oxidoak (NO_x) NO_2 gisa neurtuta	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	1.445 ppm
	Sufre oxidoak (SO_x), SO_2 gisa neurtuta	850 mg/Nm^3
	Opakutasuna	4 (Bacharach eskala)

Muga-balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-eko tenperatura, 101,3 kPa-eko presioa eta gas lehorra.

Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditukо arauz egingo diren aldizkako ikuskapenetan (ordubeteko hiru neurketa gutxienez), zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditуz gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko

da, eta aldi horretako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eragin-eremuan ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

C.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistemak.

Fokuetako hondar-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo C.1.2 atalean ezarritako goreneko kotatik behera. Tximiniek Industria Ministerioaren 1976ko urriaren 18ko Agindua, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoan ezarritako baldintzak beteko dituzte; horrela, besteak beste, laginak hartzeko puntuetara sarbide seguruak eta errazak jarriko dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen puntura bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Era berean, galdaretako erregaiari dagokionez, BIA fuel-olioa gas naturalaz ordezkatzeko aukera bideragarria den aztertuko da.

C.2.– Itsasora isurketak egiteko baldintzak.

C.2.1.– Isurketen sailkapena, jatorria, ingurune hartzailea eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Granjako animaliak elikatzeko produktuen fabrikazioa.

Jarduera-taldea: 4.

Mota-taldea-EJSN: 1-3-15.71.

Isurketa-puntua	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea	Isurketa-puntuaren UTM koordenatuak
1	Industrialak	Lehengaia lehortu ondorengo urak (kola-urak) (F1)	Itsasoa	X:523.606 Y:4.807.561
		Instalazioak eta kamioiak garbitzeko urak (F2)		
		Hozte-urak (F3)		
	Sanitarioak	Ur sanitarioak (F4)		

Halaber, aurkeztutako agirien arabera garbiak diren euri-urak sortzen dira.

C.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) F1 isurketa: Lehengaia lehortu ondorengo urak (kola-urak).

Orduko puntako emaria	1,87 m3/h
Eguneko batez besteko emaria	30,06 m3
Urteko gehienezko bolumena	7.486 m3

b) F2 isurketa: Instalazioak eta kamioiak garbitzeko urak.

Orduko puntako emaria	0,18 m3/h
Eguneko batez besteko emaria	3 m^3
Urteko gehienezko bolumena	747 m^3

c) F3 isurketa: Hozte-urak.

Orduko puntako emaria	160 m^3/h
Eguneko batez besteko emaria	2.080 m^3
Urteko gehienezko bolumena	560.000 m^3

d) 4 isurketa: Ur sanitarioak.

Urteko gehienezko bolumena	356 m^3

C.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Egungo egoera (C.2.4 atalean deskribatutako betetzeko II. jarduketa burutu arte).

Ondorengo zerrendan ageri dira kola-uren isurketaren kutsaduraren parametroen ezaugarri nagusiak, bakoitzarentzat ezarritako muga-balioekin:

a) F1 isurketa: Lehengaia lehortu ondorengo urak (kola-urak).

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
ΔT	< 3 ºC (isurketa-puntutik 50 m-ra)
OEB_5	< 200 mg/l
OEK	< 600 mg/l
Solido esekiak	< 100 mg/l
Olioak eta koipeak	< 20 mg/l
Guztizko nitrogenoa	< 350 mg/l
Guztizko fosforoa	< 10 mg/l
Amonioa	< 250 mg/l

Garbiketako uren, hozte-uren eta ur sanitarioen isurketaren ohiko kutsadura-parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira bakarrik, bakoitzerako zehazten diren isurtzeko muga-balioekin:

b) F2 isurketa: Instalazioak eta kamioiak garbitzeko urak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
OEB_5	< 50 mg/l
OEK	< 200 mg/l
Solido esekiak	< 100 mg/l
Olioak eta koipeak	< 20 mg/l
Guztizko nitrogenoa	< 30 mg/l
Guztizko fosforoa	< 10 mg/l
Amonioa	< 15 mg/l

c) F3 isurketa: Hozte-urak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
ΔT puntuala	< 3 ºC
ΔUr-zutabearen batez besteko T	< 1 ºC
Hondar-kloro askea	< 0,05 mg/l
Burdina	< 2 mg/l
Zinka	Ez dago

d) F4 isurketa: Ur sanitarioak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
OEB_5	< 50 mg/l
OEK	< 200 mg/l
Solido esekiak	< 100 mg/l
Amonioa	< 50 mg/l
Detergenteak	< 2 mg/l

Etorkizuneko egoera (C.2.4 atalean deskribatutako betetzeko II. jarduketa burutu ondoren).

Isurketaren ohiko parametroak ondoren zerrendatutakoak izango dira bakarrik, bakoitzarentzat ezarritako gehienezko isurtzeko muga-balioekin:

a) F1 isurketa: Lehengaia lehortu ondorengo urak (kola-urak).

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
ΔT	< 3 ºC (isurketa-puntutik 50 m-ra)
OEB_5	< 40 mg/l
OEK	< 200 mg/l
Solido esekiak	< 100 mg/l
Olioak eta koipeak	< 20 mg/l
Guztizko nitrogenoa	< 60 mg/l
Guztizko fosforoa	< 10 mg/l
Amonioa	< 50 mg/l

b) F2 isurketa: Instalazioak eta kamioiak garbitzeko urak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
OEB_5	< 50 mg/l
OEK	< 200 mg/l
Solido esekiak	< 100 mg/l
Olioak eta koipeak	< 20 mg/l
Guztizko nitrogenoa	< 30 mg/l
Guztizko fosforoa	< 10 mg/l
Amonioa	< 15 mg/l

c) F3 isurketa: Hozte-urak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
ΔT puntuala	< 3 ºC
ΔUr-zutabearen batez besteko T	< 1 ºC
Hondar-kloro askea	< 0,05 mg/l
Burdina	< 2 mg/l
Zinka	Ez dago

d) F4 isurketa: Ur sanitarioak.

Parametroak	Isurtzeko muga-balioak
pH-a	5,5-9,5
OEB_5	< 50 mg/l
OEK	< 200 mg/l
Solido esekiak	< 100 mg/l
Amonioa	< 50 mg/l
Detergenteak	< 2 mg/l

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

Gainera, ingurune hartzaileari dagozkion arauak eta kalitate-helburuak bete behar dira. Horrela ez bada, erakunde titularrak tratamendu egokia instalatu beharko du, isurketa ez dadin izan horiek ez betetzearen kausa.

Baimen honek ez du babesten baldintza honetan esplizituki adierazitakoak ez diren beste gai batzuen isurketa, bereziki gai arriskutsuak badira.

Mundakan Lamiarango araztegia abian jartzen den unean, orain baimentzen diren isurketak saneamendu-sarera konektatuko dira, eta Bilboko Uraren Euskal Agentziaren Mendebaldeko Kantaurialdeko Arroen Bulegora jakinarazi beharko da idatziz.

C.2.4.– Arazteko eta husteko instalazioak.

Arazketa-instalazioek edo hondakin-urak zuzentzeko neurriek jarduera hauek hartzen dituzte barne funtsean:

● Garbiketako urak 24 m^3-ko edukierako segurtasun-andel/dekantagailu batera eramaten dira. 48 ordu inguru egoten dira bertan, olioak gainazalean pilatzeko, eta erretiratu egiten dira, ekoizte-prozesura birzirkulatzeko. Sistemaren gehienezko ahalmena 0,6 m^3/h-koa da, eta aldizkako zenbait hustuketa egiten dira nahikoa maiztasunarekin, une oro 15 m^3-ko ustekabeko isurketa bat hartzeko ahalmena izateko.

● Kola-urak berreskuratzea: eragin bikoitzeko lurruntze-sistema bat dago, lehorgailuko lurrunen energia termikoa erabiltzen duena kola-urak gai lehorraren % 30-35eraino kontzentratzeko,

eta gai organikoa berreskuratu eta prozesuan berriz sartzeko. Ondoren, lurrundutako kola-ura kondentsatu egiten da hozte-ura erabiliz.

Egiteko dauden jarduketak.

Betetzeko I. jarduketa: Ingurumeneko baimen bateratua lortu eta sei hilabete igarota, jarduketa hauek gauzatu beharko dira:

● Hondakin-uren fluxu bakoitzerako kontrol-kutxeta independenteak jarri.

● Ur sanitarioak tratatzeko (bai bulegoetakoak, bai ekoizpen-eremukoak) hobi septiko bat jarri, eta hobiaren agiri teknikoak aurkeztu.

● Kola-uren isurketako kutsadura murrizteko egokitzapen-plan bat aurkeztu, gutxienez isurketako amonioa, OEK, tenperatura eta olioak eta koipeak murriztea kontuan hartzen duena, burutze-epe zehatzak barne hartuta.

● Kokapenaren plano bat aurkeztu, 1:500 edo 1:1000 eskalakoa gutxi gorabehera, instalazioko saneamendu-sareak, arazketa-sistemak, kontrol-sistemak, isurketa-puntua eta ingurune hartzailea jasotzen dituena.

Betetzeko II. jarduketa: Ingurumeneko baimen bateratua lortu eta bi urteko epean, kola-uren isurketako kutsadura murrizteko egokitzapen-planari lotutako jarduketak gauzatu beharko dira.

Kutsadura murrizteko arestian deskribatutako programa burutu ondoren, isurketa hauen arazketa-sistemak egongo dira:

● Lehengaia lehortu ondorengo urak (kola-urak) (F1): I. jarduketaren barruan kutsadura murrizteko aurkeztu beharreko egokitzapen-planean amonioa, OEK, tenperatura eta olioak eta koipeak murrizteko aurreikusitako tratamendu-sistemak.

● Ur sanitarioak (F4): Hobi septikoa.

Hartutako neurri zuzentzaileak nahikoak ez direla ikusiz gero, baimenaren baldintzak betetzearen arduradun izanik, Barna, S.A. enpresak behar beste aldaketa egingo ditu arazketa-instalazioetan isurketak baimenean ezarritako baldintzak bete ditzan. Aldaketak Administrazioari jakinaraziko dizkio lehenik eta behar izanez gero, baimena aldatzeko ere eskatuko du.

Kontrol-kutxeta bat jarriko da hondakin-ur baimendu bakoitzerako; kutxeta horiek isurketen lagin esanguratsuak lortzeko eta arazketa-instalazioen errendimendua egiaztatzeko beharrezko ezaugarri guztiak izango dituzte. Kutxetak sarbide zuzena duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio, Ingurumen Sailburuordetzak ikuskatu ahal izan ditzan.

Kasu honetan, efluentea kontrolatzeko nahitaezkoa da ondorengo elementuak izatea:

● Lehengaia lehortu ondorengo urak (kola-urak) (F1): emari-neurgailu totalizatzailea.

● Hozte-urak (F3): emari-neurgailu totalizatzailea.

C.2.5.– Isurien Kontrol-kanona.

Kostaldeen uztailaren 28ko 22/1988 Legearen 85. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Barna, S.A. enpresak arrain-irin eta -olioetako 3. kategoriako azpiproduktuak hartzeko, maneiatzeko eta eraldatzeko burutzen duen isurketa baimendua kanon batez zergapetua egongo da, eta Ingurumen Sailburuordetzak likidatuko du horren zenbatekoa zehaztu ondoren, artikulu horretan eta hori garatzeko onartzen den araudian ezarritako irizpideei jarraituz.

C.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira horien izaera zehaztu eta helmuga egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira lehentasunez, autosufizientzia– eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako artezpideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltegiratzeko guneak edo guneek lurzoru estankoa izan beharko dute. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen jarioak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinak desagertu, galdu edo ihes eginez gero, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Mundakako Udalean.

C.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak hauek dira:

- 1. prozesua: «Zerbitzu orokorrak».
  - 1. hondakina: «Metalezko ontzi kutsatuak».
    - Identifikazioa: A48032072/4800003898/1/1.
    - Hondakinaren kodea: Q05//R13//S36//C41/51//H05//A241//B0019.
    - EHZ: 150110.
    - Urtean sortutako kantitatea: 150 kg.
  - 2. hondakina: «Plastikozko ontzi kutsatuak».
    - Identifikazioa: A48032072/4800003898/1/2.
    - Hondakinaren kodea: Q05//R13//S36//C41/51//H05//A241//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 75 kg.

○ 3. hondakina: «Xurgatzaile kutsatuak».

– Identifikazioa: A48032072/4800003898/1/3.

– Hondakinaren kodea: Q05//R13//S40//C41/51//H05//A241//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 kg.

○ 4. hondakina: «Hodi fluoreszenteak».

– Identifikazioa: A48032072/4800003898/1/4.

– Hondakinaren kodea: Q06//R13//S40//C16//H06//A241//B0019.

– EHZ: 200121.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,8 kg.

○ 5. hondakina: «Hidrokarburodun nahasketak».

– Identifikazioa: A48032072/4800003898/1/5.

– Hondakinaren kodea: Q08//R13//L09//C51//H05//A241//B0019.

– EHZ: 120109.

– Urtean sortutako kantitatea: 250 kg.

○ 6. hondakina: «Ekipo ofimatikoak».

– Identifikazioa: A48032072/4800003898/1/6.

– Hondakinaren kodea: Q04//R13//S40//C6/18//H14//A241//B0019.

– EHZ: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: 10 kg.

○ 7 hondakina: «Pilak».

– Identifikazioa: A48032072/4800003898/1/7.

– Hondakinaren kodea: Q06//R13//S37//C11/16//H06//A241//B0019.

– EHZ: 200133.

– Urtean sortutako kantitatea: 1,5 kg.

○ 8. hondakina: «Erretxinak».

– Identifikazioa: A48032072/4800003898/1/8.

– Hondakinaren kodea: Q08//R13//P13//C43//H05//A241//B0019.

– EHZ: 080409.

– Urtean sortutako kantitatea: 75 kg.

○ 9. hondakina: «Amiantoa».

– Identifikazioa: A48032072/4800003898/1/9.

– Hondakinaren kodea: Q6//D5//S40//C25//H7//A241//B0019.

– EHZ: 170601.

– Urtean sortutako kantitatea: 9.600 kg.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, jarioren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak ezingo dira 6 hilabetetik gora biltegiratu.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Barna, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Barna, S.A. enpresak industriako olio erabilien kudeaketa arautzen duen ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoan olio erabiliaren kudeaketa arautzen duen irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren arabera kudeatu beharko du sortutako olio erabilia.

i) Aipatutako irailaren 29ko 259/1998 Dekretuaren arabera, olioaren hondakinen kasuan, Barna, S.A. enpresak bere ezaugarriak direla-eta olioari dagozkionak eta euren kudeaketa aipatutako Dekretuak arautzen dituenak, hondakin horien ezaugarri fisiko eta kimikoak egiaztatu beharko ditu tratamendua jaso dezaten kudeatzaile baimenduari bidali aurretik. Aipatu Dekretuaren 20.

artikuluan ezarritakoaren arabera, egiaztapena ez da nahitaezkoa izango Barna, S.A. enpresak olio-hondakin horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan baimendutako transferentzia-estazio batera eramanez gero. Kasu horretan, transferentzia-estazio horren titularrak bere gain hartuko du betebeharra, azken kudeatzaileari erabilitako olioa bidali aurretik.

j) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

Kudeatzaile baimenduak egindako onarpen-agiria izateari, aurretiazko jakinarazpena egiteari eta kontrolerako eta jarraipenerako agiria betetzeari buruzko neurriak ez dituzte bete beharko kudeaketa-sistema bateratuen kudeaketa-azpiegiturara entregatutako hondakinek, edo udal-hondakinekin eta gaika bildutako izaera berekoekin bateratu daitezkeenekin batera kudeatzeko udal-erakundeetara entregatutakoek, betiere dagokion udal-erakundearen aldetik entrega hori egiaztatzen baldin bada. Entrega horiek udal-erakundeei egin izanaren egiaztagiriak bost urtez gorde beharko dira gutxienez.

Nolanahi ere, hondakinak sortzeko kontrol-erregistroan sortutako ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinen kantitateak adieraziko dira.

k) Barna, S.A. enpresak PCB daukaten edo eduki dezaketen gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu horiek behar bezala kudeatzeko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretua, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituena, eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

l) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Arautegian ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Barna, S.A. enpresak era horretako substantziarik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparailuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu eta suntsitu baino lehen.

m) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera– eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko da Ingurumen Sailburuordetzara.

n) Aipatutako e) eta f) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta m) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

o) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Barna, S.A. enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun– eta osasun-arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

C.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Txatar metalikoak	200140	Mantentze-lanak	2.000 kg
Papera eta kartoia	200101	Administrazioa	Noizean behin
Plastikozko ontzi garbiak	150102	Instalazioen mantentze-lanak eta garbiketa	200 t
Ontzi metaliko garbiak	150104	Instalazioen mantentze-lanak eta garbiketa	500 t
Material erregogorra	161104	Mantentze-lanak	200 t
Tonerra	080313	Administrazioa	2,5 kg
Inprimatzeko tintak	080313	Administrazioa	2,5 kg
Egurrezko palet garbiak	200138	Harrera	870 kg

Sustatzaileak urtean sortutako paper eta kartoi kantitatea aurkeztu beharko du.

a) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

b) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebetetik gora biltegiratu. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez biltegiratu ahal izango dira.

c) Oro har, hondakinak hustu aurretik, kudeatzaile baimendu batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Barna, S.A. enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, nahitaezkoak direnean, bost urtean gutxienez.

d) Halaber, hondakinak zabortegian biltegiratuta eta betelanak eginda ezabatzea arautzen duen otsailaren 24ko 49/2009 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

e) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera– eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

f) Aipatutako c) eta d) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta e) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-eeM Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

C.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako agindua betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztu duten aurretiazko txostenean jasota dauden

gomendioen arabera, Barna, S.A. enpresak ebazpen honetako E.3 atalean jasotako neurriak (ezohiko jardunean aplikatzeko prebentzioari eta jarduketari buruzkoak), eta ebazpen honetako C.3 atalean jasotako neurriak (hondakinak biltegiratzeari buruzkoak) hartuko ditu.

Gainera, edozein arrazoirengatik lurzoruak hondeatzea eragingo duten obrak aurreikusten direnean, hondeatu behar diren materialak karakterizatu behar dira sor daitekeen kutsaduraren ondorioak prebenitzeko eta material horiek behar bezala kudeatzeko modua zehazteko. Karakterizazioaren emaitzak eta aurreikusitako erabilera zehatza Ingurumen Sailburuordetza honetara igorri behar dira material horiek atera aurretik lanak onartu ahal izateko. Igorpen eta onarpen hori, hala badagokio, ebazpen honetako I atalean jasotako aldaketa-erregimenaren esparruan egingo dira.

C.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

a) Ondorengo indize akustikoak gaindi ez daitezen beharrezko neurri guztiak ezarriko dira:

a.1.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 40 dB (A) gainditu, 07:00ak eta 23:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 45 dB (A) ere.

a.2.– Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den LAeq,60 segundo zarata-indizeak ezin izango du inoiz ere 30 dB (A) gainditu, 23:00ak eta 07:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta LAmax indizeak 35 dB (A) ere.

a.3.– Jarduerak ez du 1. taulan adierazitakoa baino zarata handiagoa egingo, 4 m-ko garaieran neurtuta (egoera berezietan izan ezik, horietan apantailamenduak saihesteko beharrezko garaiera hartuko da), industria-esparruaren kanpoaldeko itxituraren perimetro osoan.

Zarata-indizea	dB
L_d	75
L_e	75
L_n	65

1. taula. Industria-esparruaren kanpoaldeko itxituran eskatutako zarata-mailak.

Abian den instalazioak, 1. taulan finkatutako mugak betetzeaz gain, ez du eguneko inolako baliotan (LAeq,d, LAeq,e eta LAeq,n) 1. taulan adierazitako balioak baino 3 dB-etik gorako gehikuntzarik gaindituko.

Gainera, jardueraren gainerakotik bereizitako prozesuaren jardun-modu bat baldin badago, jardun-modu horri lotutako zarata-maila bat zehaztu beharko da (LAeq,Ti). Ti jardun-modu horren iraupen-denbora izango da. Maila horrek ez ditu 1. taulan finkatutako balioak 5 dB-etan gainditukо.

b) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko eremuetako zarata-maila.

C.6.– Usainei buruzko baldintzak.

Usainak murrizteko neurri gisa, Barna, S.A. enpresak sistema hauek ditu:

● Partikula-ikuzgailua: Lehorgailuaren eta lurrungailuaren artean dagoen ekipoa. Lehorgailuko lurrunei, eragin bikoitzeko lurrungailuan sartu aurretik, korrontearen kontrako dutxa fin bat ematen zaie, eta horrela izan ditzaketen partikulak atxikitzen dira. Horrela lehengaia berreskuratzen da,

baina batez ere, isurien kalitatea hobetu eta eragin bikoitzeko lurrungailuaren errendimendua handitzen da, kondentsatu oso zikinengatik saturazioak saihestuz.

● Eragin bikoitzeko lurrunketa eta kondentsazioa: Lehorgailuan sortutako lurrun heze eta bero guztiak bildu eta 2 eragineko lurrungailu batera eramaten dira, eta horien energia termikoa «kola-ura» berreskuratzeko baliatzen da. Lurrun horien zati bat, energia askatzean, bat-batean kondentsatzen da, baina prozesu hori osatu egin behar da, itsasoko ur hotza erabiltzen duen kondentsadore bat gehituz. Bestetik, beste usain-foku txiki batzuk daude, hala nola egosgailua, prentsa eta dekantagailua. Usain horiek ere kondentsadorera eramaten dira xurgapen-sistema baten bidez.

Bigarren fase horretan ezabatu ez diren lurrunei «kondentsaezinak» deritze, eta oso bolumen txikia dute.

Kondentsaezinak galdarara eramaten dira. Bertan, hezetasun-eduki txikia dutenez, galdararen xurgapeneko airearekin nahas daitezke, 2 segundotik gora 1.200 ºC-ko tenperaturan eta % 6tik gorako oxigeno-proportzio batekin oxidazio termiko oso bat emateko. Horrela usainen % 95etik gora ezabatzea lortzen da.

Sistema horiek berorien funtzionamendu zuzena bermatzeko moduan zainduko dira.

D) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

D.1.– Isuri atmosferikoak kontrolatzea.

a) Barna, S.A. enpresak isuriak kontrolatu beharko ditu, ondorengo informazioaren arabera:

Fokua	Foku-kodea	Fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	48-021585-01	1. lurrun-sorgailua (SIGNY lurrun-galdara)	Nitrogeno oxidoak (NO_x) NO_2 gisa neurtuta Karbono monoxidoa (CO) Sufre oxidoak (SO_x), SO_2 gisa neurtuta SH_2 Aminak Opakutasuna Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	3 urtero KEB batek
2	48-021585-02	2. lurrun-sorgailua (VULCANO lurrun-galdara)	Nitrogeno oxidoak (NO_x) NO_2 gisa neurtuta Karbono monoxidoa (CO) Sufre oxidoak (SO_x), SO_2 gisa neurtuta SH_2 Aminak Opakutasuna Karbono Organikoaren Guztizkoa (KOG)	3 urtero KEB batek

Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak kontrol-erakunde baimendu (KEB) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurketa, gutxienez ordubetekoa bakoitza), eta aldizkako neurketa horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako

«KEBen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko du. Nolanahi ere, isurien kontrolek eta baldintzek Ingurumen Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan eskatutako baldintza guztiak bete beharko dituzte.

b) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen KEB txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan ezarritako kontrol-maiztasunaren aurretik egindakoak badira. Isuri atmosferikoen ondorengo kontrolak egindako azken neurketarekiko adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

c) Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean, agiri gaurkotuak erabilita, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Agiri horiek eguneratuta egongo dira, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskuragarri izango dute.

D.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol mota
1	Lehengaia lehortu ondorengo urak (kola-urak) (F1)	pH-a, ΔT, OEB_5, OEK, SE, O. eta K., guztizko N, guztizko P, amonioa	Hiru hilean behin	Kanpokoa
	Instalazioak eta kamioiak garbitzeko urak (F2)	pH-a, OEB_5, OEK, SE, O. eta K., guztizko N, guztizko P, amonioa	Sei hilekoa	Kanpokoa
	Hozte-urak (F3)	pH-a, ΔT puntuala, ur-zutabearen batez besteko ΔT, hondar-kloro askea, Fe, Zn	Hiru hilean behin	Kanpokoa
		Zirkuituaren sarrera-irteeretako tenperatura	Astean behin	Barnekoa
	Ur sanitarioak (F4)	pH-a, OEB_5, OEK, SE, amonioa eta detergenteak	Urtean behin	Kanpokoa

Sustatzaileak fluxu bakoitzaren kontrol-kutxetaren UTM koordenatuak adierazi behar ditu.

Gainera, hozte-uren zirkuituaren sarrerako eta irteerako tenperatura astero kontrolatuko da, eta neurketa horietako bat ingurune hartzailea zaintzeko planean aurreikusitako tenperatura neurtzeko unearekin bat etorriko da.

b) Kanpoko kontrol bakoitza, bai laginak hartzea, bai ondorengo analisia, «erakunde laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du, eta goian aipatutako parametroak hartuko dira kontuan.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

c) Parametroak analizatzeko «Standard Methods For The Examination Of Water And Wastewater»en (APHA, AWWA, WPCF, azken edizioan) normalizatutako metodoetakoren bat erabiliko da, edo «ASTM Water and Environmental technology»ren azken edizioko 11. saileko metodoren bat. Parametroaren ohiko kontzentrazioaren arabera metodo egokiena hautatuko da. Egun erabiltzen diren metodoen bestelakoak diren analisi-metodoak erabil daitezke, kutsatzaileen kontzentrazioa modu egokiagoan definitzeko. Eskatutako analisien parametro bakoitzean erabilitako analisi-metodoa adierazi beharko da.

d) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira.

e) Isurketak baimeneko baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, C.2.3 ataleko parametro guztiek ezarritako mugak betetzen badituzte.

f) Ingurumen Sailburuordetzak, egoki deritzonean, arazketa-instalazioak ikuskatu eta efluentearen emariak eta analisiak aztertuko ditu, isurketen emariek eta parametroek muga baimenduak gainditzen ez dituztela egiaztatzeko. Era berean, arazketa-instalazioak ustiatzeko titulazio egokia duen arduradun bat izendatzeko eskatu ahal izango dio titularrari.

D.3.– Fabrika inguruak ingurune urtarrean duen eraginaren kontrola.

Ingurune hartzaileari buruzko azterlana hidraulika-administrazioaren erakunde laguntzaile batek egingo du urtero, eta alderdi hauek kontuan hartu eta baloratuko ditu:

● Instalazioen jardun arruntean, ur-zutabearen analisi bat egingo da urtero isurketa-puntutik 50 metrora, eta 1993ko uztailaren 13ko Aginduak, lurretik itsasora egindako isurketak kanalizatzeko proiekturako instrukzioa onartu zuenak, 7. artikuluaren 7.3.2.2 puntuan zehaztutakoari jarraiki, parametro hauek analizatuko dira: pH-a, oxigeno disolbatua, gazitasuna, tenperatura, solido esekiak eta olioak eta koipeak.

D.4.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Adierazlea	Unitatea
Bia 1 fuel-olioaren guztizko kontsumoa	t/t irin t/t olio
Energia elektrikoaren guztizko kontsumoa	kWh/t irin kWh/t olio
Energia elektrikoaren guztizko kontsumoa/t lehengai erabili	kWh/t
Guztizko isurketaren bolumena	m^3/t irin m^3/t olio
Kontsumitutako uraren bolumena / erabilitako lehengaiaren pisua	m^3/t
Isuritako uraren bolumena / erabilitako lehengaiaren pisua	m^3/tm
Kontsumitutako energia / erabilitako lehengaiaren pisua	kWh/t
Sortutako hondakin geldoen guztizko kantitatea	kg HEA/t irin kg HEA/t olio
Sortutako hondakin arriskutsuen guztizko kantitatea	kg HA/t irin kg HA/t olio

D.5.– Zarataren kontrola.

a) L_d, L_e, $L_{n,}$ $L_{Aeq,Ti}$ eta $L_{Aeq,60\ segundo}$ indize akustikoen ebaluazioak egin beharko dira hiru urtean behin. Kontroleko lehen urtean izandako emaitzen arabera erabakiko da aurrerantzean neurketak egiteko maiztasuna.

b) Aurreko atalean adierazitako ebaluazio guztiak ENAC erakundeak espazio– eta denbora-laginketarako egiaztatutako akustikaren esparruko entsegu-laborategiek egin beharko dituzte. Nolanahi ere, ingurumen-organoak ebaluazio horiek egiten dituzten erakundeek gaitasun tekniko egokia dutela zainduko du.

c) Ebaluazio-metodoak eta -prozedurak, eta ebaluazio horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek landutako jarraibide teknikoetan ezarritakora egokituko dira.

D.6.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30 baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

D.7.– Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko puntuen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Ingurumena zaintzeko programan jardueraren ohiko adierazleak eta horiek analizatzeko sistematika sartuko dira, ingurumen-hobekuntza ziurtatzeko enpresak berak ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatzeko (ingurumen-adierazleak).

E) Ezohiko egoeretarako prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak.

E.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako eragiketa programatuak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

E.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: otsailaren 4ko 1/2005 Legea, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeari buruzkoa (15.4 epigrafea «Landare- eta animalia-jatorriko koipe eta olioen fabrikazioa»), eta urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua, kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituena. Hori dela-eta, Barna, S.A. enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko

uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

E.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako agirietan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa mota), eta lurzoruaren gaineko jarioak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskapen eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen begi-bidezko ikuskapenak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurre hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, olioak, erregaiak, produktu kimikoak, efluenteen arazketako hondakinak, eta orokorrean, fabrikan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa ditzake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Hauts-produktuak biltegiratzeko (irina), iragazkiak dituzten silo itxiak egongo dira. Iragazki horiek prebentziozko mantentze-lan jarraikiak izango dituzte balizko akatsak detektatzearren.

h) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

i) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

j) Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da kubetak husteko eragiketak kontrolatzeko protokolo edo agiri bidezko prozedura; eraginkortasunean eragin dezaketen produktuen jarioak ez dira tratamendu-instalaziora eramango.

k) Pabiloien barruan zolak garbitzean sortutako urak tratamendu-lerrora bidaliko dira.

l) Andel edo putzuen hondoan pilatzen diren solidoak ez dira ibilgura hustuko aldizkako garbitze-lanetan zehar; behar bezala kudeatuko dira edo zabortegi baimendura eramango dira. Behar izanez gero, andel iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan biltegiratuko dira.

m) Arazketa-instalazioek lohi-tratamendua badute, xukatutako ura instalazioaren sarrerara birzirkulatuko da, bertan tratatzeko.

n) Hobi septikoaren sistemak eta iragazki biologikoak garbitze- eta mantentze-lan egokia izango dute errendimendu ona ziurtatzeko. Aldizka enpresa espezializatu batek erretiratuko ditu pilatutako solido eta lohiak, eta iragazki biologikoaren ohantzea garbituko du, garbiketan arrastatutako solidoak ibilgura hustea saihestuz.

o) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

p) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

Ebazpen honen C.3 atalean deskribatutako jarduerez gain, fuel-olioa biltegiratzeko eta maneiatzeko instalazioak behar den bezala isolatuko dira, haustura, ustekabeko gainezkatze, eta abarren ondorioz gerta daitezkeen jarioei aurre egiteko.

Hondakin-ura ezingo da «by pass» bidez isuri arazketa-instalazioetan.

Programatutako mantentze-lanetan nahitaez «by-pass» bidez isurketak egin behar badira, titularrak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dio aurretiaz, segurtasun-neurrien eta isurketak ingurune hartzailearen kalitatearen gainean duen eragina ahal den neurrian gutxitzeko neurrien funtzionamendua zehaztuz. «By pass» horretatik ustekabeko isurketa bat sortuko balitz, titularrak, Ingurumen Sailburuordetzara 48 orduko epean bidali behar duen txostenaren bidez, segurtasun-neurrien funtzionamendua egiaztatu beharko luke.

q) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ezohiko gertaeraren baten aurrean (besteak beste, ustekabeko isurketa, isurtzeko muga-balioak gainditzea, gai arriskutsuak isurtzea, sutea, edo ingurumena babesteko elementuen jardunean edo osotasunean eragin dezakeen edozer), sustatzaileak gorabehera edo ezohiko gertaera horren berri eman beharko du Ingurumen Sailburuordetzan.

r) Gertakari edo arazo larriren bat edo atmosferara ustekabeko isuriren bat eginez gero, Ingurumen Sailburuordetzari jakinarazteaz gain, SOS Deiak eta Udalari ere jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, datu hauek agertuko dira:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Iraupena.

- Ustekabeko isurketa bada, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.
- Prebentziozko neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

s) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu egin beharko da. Abenduaren 3ko 2267/2004 Errege Dekretua aplikatu behar bada, egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak. Hori egin ezean, egindako eskaeraren kopia aurkeztu beharko da eskumena duen erakundearen aurrean.

Bestela 2267/2004 Errege Dekretu hori zergatik ezin den aplikatu justifikatu beharko da. Gainera, instalazioek suteen aurkako babesaren arloan ezarritako exijentziak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute. Egiaztapen hori egiteko Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaio enpresa instalatzaileak egindako ziurtagiria, «azaroaren 5eko 1942/1993 Errege Dekretuak, suteen aurka babesteko instalazioen araudia onartzen duenak» ezarritakoarekin bat etorrita. Halaber, tresna, ekipo eta sistemen mantentze-lanak Errege Dekretu horretan finkatutakoaren arabera gauzatzen direla egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute. Agiri horiekin batera, instalazio edo mantentze-lanen enpresa baimenduak industria-erregistroan inskribatzeko ziurtagiria aurkeztu beharko dute.

F) Baldin eta arautegi berria indarrean jartzeak, edo inplikatutako sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle eta zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa jardueraren sustatzaileak hala eskatuta edo ofizioz aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

G) Urtean behin Barna, S.A. enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara eta uretara egindako isuriei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi, isuritako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duen apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori osatzen duten datuak ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko dira, Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-eeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web-orrian eskuragarri): Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

H) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, lehendik dauden instalazioen titularrek agintaritza eskudunari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek (EE 1907/2006 Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu dira horiek) giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

I) Ingurumeneko baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Barna, S.A. enpresak ingurumen-organoaren aurrean egiaztatu beharko du ebazpen honetako bigarren ataleko ondorengo puntuetan ezarritako baldintzak betetzen dituela, ebazpen hau jakinarazten denetik gehienez 6 hilabeteko epean: C.1.2 (Tximiniaren garaieraren kalkuluak justifikatzeko memoria); C.1.4 (Bideragarritasunari buruzko azterlana); C.2.4 (Betetzeko I. jarduketak); C.3.1.e) eta C.3.2.c) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak); C.3.1.m) eta C.3.2.e) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen erregistro-eredua); D.5 (Zarata kontrolatzeko proposamena); D.7 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); E.1 (Mantentze-lanetako isuri eta hondakinen balioespena); E.3.a) (Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua); E.3.h) (Produktu kimikoen biltegiratzeen egiaztagiriak); E.3.i) (Larrialdietarako materialen zerrenda); E.3.j) (Kubetak husteko maniobraren protokoloa); E.3.s) (Suteen aurkako babesari buruzko egiaztagiriak).

Halaber, lehen aipatutako epean, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du teknikari eskudunak emandako ziurtagiria. Bertan, instalazioak aurkeztutako proiektuarekin eta ebazpen honetan xedatutakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla ziurtatuko du. Dena den, baldintza horiek bete ote diren egiaztatzeko, ingurumen-organo honi atxikitako zerbitzu teknikoek ikuskapen-bisita egingo dute, hala badagokio.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urtez egongo da indarrean. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Barna, S.A. enpresak ebazpen honen xede den «arrain-irin eta -olioetako 3. kategoriako azpiproduktuak hartzeko, maneiatzeko eta eraldatzeko» jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ebazpen honetako hirugarren atalean ezarritako baldintzak betetzen direla ez egiaztatzea, baldin eta interesdunak ez badu behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen.

● Barna, S.A. enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Barna, S.A. enpresari, Mundakako Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 12a.

Ingurumeneko sailburuordea,
NIEVES TERÁN VERGARA.